

**NAFARROAKO KUTXA BANKU-FUNDAZIOA**  
**PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA**  
**2019. URTEA**

## AURKIBIDEA

<b><u>1. AURKEZPENA</u></b> .....	3
<b><u>2. DEIALDIAREN XEDEA. EKINTZA-LERROAK</u></b> .....	3
<b><u>3. DEIALDIAN SARTZEN EZ DIREN GASTUAK</u></b> .....	5
<b><u>4. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK</u></b> .....	5
<b><u>5. PROIEKTUEN AURKEZPENA ETA EPEAK</u></b> .....	6
<b><u>6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</u></b> .....	7
<b><u>7. BALORAZIO-IRIZPIDEAK</u></b> .....	8
<b><u>8. NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN EKARPENA</u></b> .....	10
<b><u>9. DEIALDIAREN EBAZPENA</u></b> .....	11
<b><u>10. LANKIDETZA FORMALIZATZEA</u></b> .....	11
<b><u>11. JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZAK ORDAINTZEA</u></b> .....	12
<b><u>12. LANKIDETZA EZAGUTARAZTEA</u></b> .....	13
<b><u>13. DATUEN BABESA ETA INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA</u></b> .....	14

## **1.-AURKEZPENA ETA ERAKUNDE HARTZAILEAK**

---

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioa (hemendik aurrera, “Nafarroako Kutxa Fundazioa”) irabazi-asmorik gabeko banku-fundazio pribatua da. Fundazioaren estatutuei jarraikiz, Nafarroako gizarte-, ekonomia- eta kultura-garapena sustatzea du helburu, baita gizartearen erronka berriei erantzutea ere, eta, horretarako, pertsoneri beren oinarritzko premiak eta funtsezko gabeziak betetzen laguntzen diegu.

Nafarroako Kutxa Fundazioak deialdi hau egin du 2019rako, helburu hauek dituzten proiektuei zuzenduta:

- Egoera ahulenean dauden pertsoneri laguntzea;
- Elkartasuna, parte-hartzea eta bizikidetzaren sustatzea;
- Kultura, heziketa eta ondarea indartzea.

Deialdia Nafarroako Foru Erkidegoan helbideratutako irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuei zuzentzen zaie.

Deialdi honen eraginpeko eremutik at geratzen dira Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioa eta haren mendeko diren edo harekin lotuta dauden erakunde autonomo eta erakunde publikoak, baita sozietate eta fundazio publikoak ere.

## **2.-DEIALDIAREN XEDEA. EKINTZA-LERROAK**

---

### **2.1 EGOERA AHULENEAN DAUDENEI LAGUNTZEA**

Ekintza-lerro honen helburua proiektuak babestea da; hain zuzen ere, gizarte-problematika berriei erantzuten dieten proiektuak, honako jardun-eremu hauetan:

- Autonomia sustatzea eta desgaitasunari arreta ematea: autonomia pertsonala garatzen eta desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten ekintzak sustatu edo areagotzen dituzten proiektuak.
- Mendetasunari arreta ematea (hala nola, gaixotasun neurodegeneratiboei, gaixotasun kronikoei eta gaixotasun arraroei): autonomia pertsonala sustatzea, mendetasunaren prebentzioa eta bizi-kalitatea hobetzea. Laguntza psikosoziala eskaintzea gaixoari eta familia-inguruneari.

- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka: oinarrizko premiak eta funtsezko gabeziak betetzea.
- Garapenerako lankidetzak: pertsonen elikadura, osasuna, higiena eta heziketa, eta oinarrizko gizarte-azpiegiturak.
- Autonomia sustatzea eta arreta ematea adinekoei: mendetasunaren prebentzioa eta bizi-kalitatea hobetzea adinekoengan.

GARRANTZITSUA: Proiektuak Nafarroan garatu beharrekoak izango dira, garapenerako lankidetzaren jardun-eremuan aurkezten diren proiektuak izan ezik.

## **2.2 ELKARTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA BIZIKIDETZA SUSTATZEA**

Ekintza-lerro honen helburua proiektuak babestea da; hain zuzen ere, gizartearen kohesioa, herritarren parte-hartzea eta bizikidetzako eta elkartasuneko esparru berrien esperimazioa sustatzen duten proiektuak, betiere honako jardun-eremu hauetan:

- Elkartegintza: elkarrekin-eremu eta boluntariotzaren sustapena eta kudeaketa sustatzen dituzten proiektuak.
- Herritarren parte-hartzea: gizarte antolatze eta egituratzeko ekimenak eta erakunde kudeaketan partaidetza bultzatzen duten proiektuak.
- Bizikidetzak eta elkartasuna: bizikidetzako eta elkartasuneko esparru berriak sustatzen dituzten proiektuak.
- Genero-berdintasuna sustatzea: aukera-berdintasunaren, emakumeek edozein eremutan parte hartzearen, erantzunkidetasunaren, eta lana eta norberaren bizitza bateragarri egitearen aldeko proiektuak.
- Gazteen parte-hartzea gizartearen sustatzea eta dinamizatzea.

## **2.3 KULTURA, HEZIKETA ETA ONDAREA INDARTZEA**

Ekintza-lerro honen helburua proiektuak babestea da; hain zuzen ere, hezkuntza-eremuko berrikuntza-proiektuak; arte eta kultura garaikidea sustatzeko proiektuak eta Nafarroako kultura-ondare materiala eta immateriala kontserbatzen eta ezagutarazten laguntzeko proiektuak. Honako jardun-eremu hauetako proiektuek jasoko dute laguntza:

- Berrikuntza heziketaren eremuan: ikasteko metodologia berrietan oinarritutako prestakuntza-programa berritzaileei laguntzea.
- Sorkuntza garaikidearen produkzioa eta/edo zabalkundea honako alor hauetan: musika, arte eszenikoak, dantza, arte bisualak, literatura, ikus-entzunezkoak, arte digitalak eta abar.
- Nafarroako kultura-ondare materiala kontserbatzea, babestea eta ezagutaraztea, eta Nafarroako herri-kultura tradizionalaren kultura-ondare immateriala eta adierazpenak berreskuratzea eta ikusgai egitea.

### **3. DEIALDIAN SARTZEN EZ DIREN GASTUAK:**

Nafarroako Kutxa Fundazioak emandako laguntzarekin ezin izango dira honako gastu hauek ordaindu:

- Jolaserako, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.
- Bidaiak, txangoak, bazkariak, zizka-mizkak edo horien antzekoak.
- Osasun Sistema Publikoaren kargura artatu behar diren tratamendu edo zainketa medikoak.
- Indarreko legeen eta arauen arabera, Administrazioak betearazi behar dituen jardunak.
- Erakundearen ohiko egoitzan eta gainerako higiezinetan egin beharreko mantentze-lan arruntak (alokairuak, kontsumoak, ekarpenak, interneteko konexioak...).
- Azpiegiturak eskuratzea edo horietan inbertsioak egitea, obrak, erreforma-lanak edo espazio nahiz ekipoen alokairua (Nazioarteko Lankidetzako eta Ondarea Kontserbatzeko proiektuak izan ezik).
- Zorrak ordaintzea eta edonolako finantza-eragiketak amortizatzea.
- Erakundeak berreskura dezakeen balio erantsiaren gaineko zerga.
- Erakundeko langileen ordainsariak, betiere Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino 3 aldiz handiagoak badira, 2018rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen abenduaren 29ko 1077/2017 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

### **4.-DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

---

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Erakundearen izena emateko formularioa zuzen eta osorik betetzea (IFK, helbidea eta abar); formularioa web-orri honetan aurki daiteke: [www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es)
- Legez irabazi-asmorik gabeko erakunde publikotzat edo pribatutzat eratuta egotea.
- Nafarroako erakundeen dagokion erregistroan izena eman zuenetik hasita, gutxienez, bi urteko antzinatasuna izatea deialdia argitaratu den unean (hau da, 2016ko azaroa baino lehen erregistratutako erakundeak). Bi erakunderen edo gehiagoren arteko fusiotik sortutako erakundeen

kasuan, jatorrizko erakundeetako batek, gutxienez, bete beharko du bi urteko antzintasuna erregistroan.

- Fundazio-xedeen artean izatea dagokien deialdiaren lerroko jardun-eremuarekin lotutako jarduerak egitea.
- Nafarroako Kutxa Fundazioak aurreko 3 urtetan emandako laguntzak behar bezala justifikatu izana, laguntza-programa edozein izanik ere.
- Zerga- eta lan-arloko betebeharrak egunean izatea.
- Ondare Materiala Kontserbatzeko proiektuetan, Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak proiektuan bildutako jardunak egiteko emandako baimena aurkeztea.
- Deialdi honen xedearekin bat datorren proiektua aurkeztea, zehatza eta erakundearen jardura orokorretatik bereizita.

## **5.-PROIEKTUEN AURKEZPENA ETA EPEAK**

---

Proiektuak aurkezteko prozesua honako web-orri honetan egingo da: [www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es), berariaz prestatutako aplikazio informatikoaren bitartez. Informazio gehiago behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan helbide elektronikoa honetara mezu bat idatzita: [fundacioncajanavarra@fundacioncajanavarra.es](mailto:fundacioncajanavarra@fundacioncajanavarra.es).

Eskatutako dokumentazioa aurkezteko 30 egun naturaleko epea izango da deialdia fundazioaren web-orrian argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

Formulario guztiak jasotzen direnean, erakunde eskatzaileak eman digun helbide elektronikora mezu bat bidaliko dugu jaso ditugula berresteko.

Erakunde bakoitzak 2 proiektu aurkezteko aukera izango du, baina bietako bat soilik izango da deialdi honetako laguntzen onuradun. Aurkeztutako proiektuei dagokienez, erakundeak egoki irizitako moduan banatu ahal izango ditu deialdi honetan aurreikusitako ekintza-lerroen eta/edo jardun-eremuen barruan.

Erakundeek aurkeztutako dokumentazioa ez badago osatua edo akatsen bat baldin badu, 10 egun naturaleko epe bakar eta luzaezina egongo da dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko; Nafarroako Kutxa Fundazioak hautemandako gabeziak jakinarazteko erakundeari komunikazioa bidaltzen dion egunean hasiko da epe hori kontaktzen. Komunikazio hori posta elektronikoa bidez egingo da.

Proiektuak gauzatzeko epea gehienez 12 hilabete izango da 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitarte.

Ez da luzapenik onartuko deialdi honetan onartutako proiektuak gauzatzean, ezohiko kasuetan izan ezik; nolahi ere, ezohiko kasu horietan Fundazioari baimena eskatu behar zaio, eta Fundazioak onartu edo ukatu ahal izango du, egoera bakoitzeko zirkunstantzien arabera.

Proiektuak behar bezala erregistratze aldera, Nafarroako Kutxa Fundazioak eskuliburu bat eskainiko du web-orriaren bitartez, proiektuak egoki osatu eta

aurkezten laguntzeko; halaber, lanerako dokumentu bat ere eskainiko du, aipatutako aplikazio informatikoan testua garatzeko dauden atalak azaltzeko.

#### GARRANTZITSUA:

Ez da onartuko proiekturik, ez dokumentaziorik, adierazitako epeetatik kanpo, ezta adierazitako web-orrian aipatzen direnak ez diren beste euskarri batzuetan ere.

Aurkezten direnean, proiektuak ekintza-lerroen barruan sartuta egongo dira, baita lerro bakoitzeko dagozkien jardun-eremuetan ere.

Nafarroako Kutxa Fundazioak ez ditu onartuko oinarri hauetako 6. zenbakian aipatzen den derrigorrezko dokumentazioaren % 50, gutxienez, zuzen aurkeztuta ez duten proiektuak, eta ez dute izango zuzentzeko aukerarik ere.

### **6.-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

---

Eskaera [www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es) web-orriaren bitartez egingo da bertan dagoen proiektuak aurkezteko aplikazio informatikoa erabilita.

Erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

1. Erakundearen IFK.
2. Erakundearen Estatutuak.
3. Azken ekitaldi itxiko balantzea, erakundearen legezko ordezkariak sinatuta.
4. Erakundearen azken ekitaldi itxiko jardueren memoria.
5. Proiektuaren gainerako finantzabidearen ekarpenen ebazpenaren kopia (izanez gero) edo eskaeraren kopia (oraindik ebatzi gabe baldin badago).
6. Zuzendaritza-batzordearen, patronatuaren edo erakundearen gobernu-organoaren erabakiaren ziurtagiria, non onartzen diren, alde batetik, deialdian parte hartzeko eskaera aurkeztea eta, bestetik, proiektuaren kudeaketan erakundearen ordezkari izango den pertsona.
7. Zerga Agentziaren eta/edo Foru Ogasunaren ziurtagiria, proiektua aurkezten den unean indarrean dagoena, zerga-betebeharrak egunean dituela dioena.
8. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, proiektua aurkezten den unean indarrean dagoena, lan-arloko betebeharrak egunean dituela dioena.
9. Erakundea Nafarroako erakundeen dagokion erregistroan erregistratuta egotearen ziurtagiria. Baldin eta erakundea Foru Erkidegotik kanpo erregistratuta badago, Nafarroan helbideratuta dagoen ordezkari-tza, egoitza edo agentziaren bat duela egiaztatu behar izango da, erakundeak horren bitartez jarduteko foru-lurraldean.

10. Ondarea kontserbatzeko proiektuen kasuan, Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren ziurtagiria ere aurkeztu behar da.

11. Erakundearen ordezkari izango den pertsonaren NANA.

#### GARRANTZITSUA:

Dokumentazio guztia formatu elektronikoa aurkeztu behar da. Ez da dokumentazio fisikorik onartuko, inolaz ere.

Eskatuz gero, aurkeztutako dokumentazioa baliozkoa dela egiaztatu ahal izan behar dute erakundeek, jatorrizko dokumentuekin.

Proiektuak baloratzeko, Nafarroako Kutxa Fundazioak dokumentazio gehiago aurkezteko eskatu ahal izango du.

### **7.-BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

---

Proiektuak baloratzean, gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira, honela banatuta:

7.1 Proiektuaren kalitatea eta interesa. Gehienez 40 puntu

7.2 Proiektuaren aurrekontu ekonomikoaren egokitasuna. Gehienez 20 puntu

7.3 Proiektuak gizartean duen eragina. Gehienez 30 puntu

7.4 Proiektua kudeatzen duen erakundearen balorazioa. Gehienez 10 puntu.

#### GARRANTZITSUA. Erregistroa gorabeherarik gabe burutzea:

Erakundearen erregistroa eta proiektuaren erregistroa egoki eta zuzenketarik egin behar izan gabe burutzen dituzten erakundeei 5 puntu gehiago emango zaizkie beren proiektuen azken balorazioan.

#### **7.1.- Proiektuaren kalitatea eta interesa:**

Aintzat hartu beharreko balorazio-irizpideak: gehienez 40 puntu.

- Justifikazioa, koherentzia eta metodologia: proiektua justifikatzea, honako alderdi hauek argi eta garbi identifikatuta objektiboki: premiak, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, argitasuna azalpenean, zehaztutako helburuen arteko koherentzia eta bat-etortzea, aurreikusitako lan-metodologia, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta proiektutik espero diren berriarazko emaitzak, baita jardunen eta gauzatzeko faseen egutegi zehatza txertatzea ere (gehienez 15 puntu).
- Interesa eta garrantzia: gizartearen, heziketaren edo kulturaren arloko interesa (egokitasuna, kalitatea eta bikaintasuna) eta proiektuak lurraldean eta/edo erreferentziako sektorean duen garrantzia (gehienez 8 puntu).



- Ebaluazioa: proiektuen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa, kalitate-irizpideei jarraikiz, eta eraginaren ebaluazioa, espero diren emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen adierazleak zehaztuta (gehienez 5 puntu).
- Jasangarritasuna: proiektuan aurreikusitako jardueren etorkizuneko jasangarritasuna bermatzeko neurriak, aurreikusitako diru-sarrerak lortzeko balizko bideei erreparatuta (gehienez 3 puntu).
- Euskara: euskararen presentzia proiektua gauzatzean eta garatzean, baita proiektua ezagutarazten eta sustatzen denean ere (gehienez 5 puntu).
- Sarean lan egitea: agente guztien arteko lan koordinatua eta osagarria lurralde berean, eragile publiko eta pribatuen arteko sinergiak bilatuta (gehienez 2 puntu).
- Inklusioa: desgaitasuna dutenak, bazterkeria-arriskuan daudenak edo gizarte-desberdintasuneko arriskuan daudenak gizarteratzea (gehienez 2 puntu).

## 7.2.- Proiektuaren aurrekontu-egokitasuna:

Aintzat hartu beharreko balorazio-irizpideak: gehienez 20 puntu.

- Koherentzia ekonomikoa: diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehaztua, eta aurreikusitako kontzeptu bakoitzerako diru-banaketa egokia. Proiektuaren aurrekontu-partida bakoitza banakatzea (gehienez 12 puntu).
- Proiektuaren kofinantzaketa eta baliabide propioen ekarpena, behar bezala egiztatuta (gehienez 8 puntu):

% 50 baino gehiago	8 puntu.
% 40tik % 50era bitarte	6 puntu.
% 30etik % 40ra bitarte	4 puntu.
Gehienez % 30	2 puntu.

## 7.3.-Proiektuaren gizarte-eragina:

Aintzat hartu beharreko balorazio-irizpideak: gehienez 30 puntu.

- Eragina: proiektuaren justifikazioa eta xede-populazioaren gaineko zuzeneko jarduna, hedadura eta gizartea eraldatzeko eta hobetzeko ahalmena, baita zenbat onuradunengana iritsiko den zuzenean eta haien profila ere, datuak sexuaren arabera bereizita (gehienez 6 puntu).
- Ezagutaraztea: erakundeak proiektua ezagutarazteko duen ahalmena, eta proiektuaren eta aurreikusitako jardueren komunikazio-plan zehatza (gehienez 3 puntu).
- Parte-hartzea: parte-hartzea sustatzea, gizarte-eragileen eta onuradunen eginkizun aktiboa eta balio-ekarpena bultzatuta proiektuaren ziklo osoan (gehienez 4 puntu).

- Integrazioa: proiektuari esker zenbat lanpostu sortzen edo mantentzen diren, bereziki erreparatuta migratzaileen edo laneratzeko arazoak dituztenen integrazioari (gehienez 4 puntu).
- Irigarritasuna: proiektuaren garapenean bildutako irigarritasun-irizpideak (gehienez 5 puntu).
- Berrikuntza: jardunbide berritzaileak garatzea, erabiltzen den metodologiari, eraginaren ebaluazioari, jakintza-transferentziari eta gizarte-erlaketari bereziki erreparatuta (gehienez 4 puntu).
- Ekitatea: proiektuaren ekitatea ekonomiaren, geografiaren, generoaren eta kulturaren arloetan (gehienez 4 puntu).

#### **7.4.-Proiektua kudeatzen duen erakundearen balorazioa:**

Aintzat hartu beharreko balorazio-irizpideak: gehienez 10 puntu.

- Kaudimena: erakundearen ahalmen ekonomiko-teknikoa eta esperientzia proposatutako proiektuari dagokionez. Erakundearen egonkortasuna eta ibilbidea, deialdiaren xedeari dagokionez (gehienez 3 puntu).
- Gardentasuna: memoria ekonomikoa eta jarduera-memoria argitaratzea, eta eskuragarri jartzea. Gardentasuneko eta kontuak emateko neurriak txertatzea (gehienez 1,5 puntu).
- Gizarte-oinarria: erabiltzaileen oinarri sendo eta adierazgarria duela egiaztatzea, baita oinarri hori areagotzeko lan egiten duela ere, eta populazioari jarduerak eta zer premiei erantzuteko diren jakinaraztea. Boluntarioak izatea, boluntarioritza-plan bat izatea eta behar bezala kudeatzen dutela egiaztatzea (gehienez 2 puntu).
- Kalitatea: kudeaketaren kalitatea eta ahalmena egiaztatzea (EFQM/ISO/Kudeaketa Aurreratua) (gehienez 1,5 puntu).
- Genero-berdintasuna: erakunde eskatzailearen zuzendaritzako karguetan edo erantzukizuneko karguetan dauden emakumeen ehunekoa, erakunde eskatzaileak Genero Berdintasuneko Plana onartzea (gehienez 2 puntu).

## **8.- NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN EKARPEN EKONOMIKOA**

---

Nafarroako Kutxa Fundazioak gehienez ere 1.200.000 euroko ekarpena egitea aurreikusi du laguntza-deialdi honetarako, honela banatuta:

- Egoera ahulenean daudenei laguntzea: 700.000 euro.
- Elkartasuna, parte-hartzea eta bizikidetzaren sustatzea: 130.000 euro.
- Kultura, Heziketa eta Ondarea indartzea: 370.000 euro.

Nafarroako Kutxa Fundazioa ez dago jarduketa-lerro bakoitzerako aurreikusitako aurrekontua agortzera behartuta, baldin eta aurkeztutako proiektuen kalitatea ez bada esleitutako diru-kopurua osorik banatzeko

adinakoa. Hala badagokio, soberakoa Nafarroako Kutxa Fundazioak bere helburuak betetzeko egoki iriztitako proiektu edo ekintzetara bideratuko da.

Deialdi honetan, proiektu bakoitzari gehienez 20.000 euroko laguntza emango zaio. Nafarroako Kutxa Fundazioaren ekarpenak ezin izango du proiektuaren guztizko kostuaren % 75 gainditu.

## **9.-DEIALDIAREN EBAZPENA**

---

- Deialdi honetara aurkezteak deialdiaren oinarriak eta ebazpena onartzen direla esan nahi du. Laguntza emanaz gero, 2019. urterako baino ez da izango, eta ez du inolako aurrekaririk ezarriko datozen urteotarako.
- Ebaluazio Agentzia batek aztertu eta baloratuko ditu proiektuak oinarri hauetan zehaztutako baldintza eta irizpideen arabera, eta esleipen-proposamen bat egingo dio Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuari.
- Fundazioaren Patronatuak Ebaluazio Agentziaren esleipen-proposamena aztertu eta ebazpena emango du, eta ebazpen hori apelaezina izango da.
- Behin betiko esleipenaren ebazpena 2019ko otsailean argitaratuko da, eta posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaie parte hartu duten erakunde guztiei.
- Erakunde esleipendunen zerrenda –ekintza-lerroaren arabera– Nafarroako Kutxa Fundazioaren webgunean argitaratuko da: ([www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es))

## **10.-LANKIDETZA FORMALIZATZEA**

---

Laguntzak proiektu bakoitzari esleitu ostean, erakunde bakoitzak lankidetzaren formalizatutako du Nafarroako Kutxa Fundazioaren web-orrian berriaz prestatutako termino eta baldintzak onartuta; lankidetzaren 2019ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Termino eta baldintza horiek Erakundearen eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmen baten ondorio berdinak izango dituzte, eta honako alderdi hauek zehaztuko dituzte: aldearen eskubide eta betebeharrak, indarraldia, emandako laguntzaren zenbatekoa, non eta nola ordainduko den, proiektuaren jarraipena egiteko prozedura zein izango den, fakturak egozteko aldia, Proiektuaren Azken Memoria aurkezteko epeak, ezagutarazteko konpromisoak eta indargabetzeko arrazoiak.

Termino eta baldintzak onartzeko unean, erakunde bakoitzak sinatzailearen/legezko ordezkariaren NANaren fotokopia aurkeztu behar du, ekitaldirako dituen ahalmenak eta dagokion finantza-erakundeak egindako ziurtagiri bat, non egiaztatzen den laguntzaren esleipendun den erakundearen proiektuaren ondoriozko ordainketak egingo diren kontuaren titular dela.

Termino eta baldintzak onartzeko unean, erakundeek proiektuaren behin betiko aurrekontua ere onartu behar dute, esleitutako zenbatekoarekin bat etorrira eta Nafarroako Kutxa Fundazioak eskainiko duen eredu bati jarraikiz.

Ebazpena jakinarazi zenetik bi hilabete igaro ostean ez badira termino eta baldintzak onartu, erakundeak eskatutako laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Onartutako termino eta baldintzak betetzen ez badira, lankidetzaren indargabetu egingo da eta erakundeak ordaindu zaizkion zenbatekoak itzuli behar izango ditu.

## **11.-JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

---

Nafarroako Kutxa Fundazioak bere web-orrian –[www.fundacioncajanavarra.es](http://www.fundacioncajanavarra.es)– prestatuko duen aplikazioaren bitartez justifikatu behar dira proiektuak; formulario ekonomiko bat bete behar izango da, eta gauzatutako proiektua justifikatzen duten fakturak ez ezik, proiektuaren azken memoria jasoko duen txantilo bat ere atxiki behar zaizkio.

Nafarroako Kutxa Fundazioak emandako zenbatekoaren % 10, gehienez ere, onartuko da proiektuaren kudeaketako eta administrazioko gastuetarako.

Emandako laguntzaren zenbatekoa hiru alditan ordainduko da: lehenengoan % 40, automatikoki lankidetzaren formalizatu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ostean; bigarrenenean % 30, justifikazio ekonomikoa eta jarraipeneko tarteko txostena aurkeztu ostean (emandako zenbatekoaren % 70etik) eta azkenekoan gainerako % 30a, egindako proiektuaren azken memoria eta gastuen ziurtagiriak aurkeztu eta onartu ostean.

Zenbait proiekturen ezaugarriak edo gauzatzeko epeak direla eta, justifikazioaren % 100a aurkez dezakete tarteko faseak egiaztatu behar izan gabe (ekitaldiak, jarduketa puntualak...); kasu horretan, proiektu guztiaren justifikazio prozesua izapide bakar batean egin ahal izango dute eta, horretarako, Proiektuaren azken memoria eta ekarpen ekonomikoaren % 100a behar bezala aplikatu izanaren balorazioa aurkeztu behar dituzte.

Proiektuak justifikatzeko epea laguntza behar bezala formalizatu eta emakida arautzen duten termino eta baldintzak onartu ostean hasiko da. Aurkeztutako proiektua kudeatzen duen erakundeak aurkezten dituen justifikazio ekonomikoak baino ez dira onartuko, proiektua beste erakunde batzuekin lankidetzan gauzatzen bada ere.

Emandako laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzailea titular den kontu batean ordainduko da. Erakundeak proiektua kontu horretatik kudeatzeko konpromisoa hartuko du.

Nafarroako Kutxa Fundazioak noiznahi eskatu ahal izango du proiektua gauzatzen ari dela egiaztatzeko eta kontuak ematean gardentasuna bermatzeko dokumentazioa, bisita baten bitartez, auditoria-txosten baten bitartez edo beste nolabait.

Proiektuaren Azken Memoriak gehienez ere 20.000 karaktere izango ditu tarteak kontatuta (dokumentazio ekonomikoa izan ezik) eta, gutxienez, honako alderdi hauek bildu behar ditu:

- Egindako jardueren deskribapena.
- Helburuen betetze-maila.
- Lortutako emaitzak.
- Izandako gizarte-eragina.
- Hirugarrenek proiektuari egindako ekarpen ekonomikoak.

Azken justifikazioa adierazitako termino horien arabera egin behar da, gehienez ere 90 egun naturaleko epean, 2019ko abenduaren 31tik kontatzen hasita.

Deialdi honen oinarrietan xedatutakoa ez bada betetzen, edo datuak faltsutu direla edo diru-laguntza ematea eragin zuten xedeak aldatu direla egiaztatuz gero, diru-laguntza galdu egingo da, jaso ahal izan diren zenbatekoak itzuli egin behar izango dira eta ezin izango da etorkizuneko deialdietan parte hartu.

#### GARRANTZITSUA:

Garapenerako Lankidetzako proiektuen kasuan, tokiko bazkidea Nazioarteko Erakunde bat denean, Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmen edo tratatuetan legez xedatutakoaren arabera justifikatuko du erakundeak, eta bi erakundeek sinatutako ziurtagiri bat aurkeztu behar du, laguntza jaso duen proiektuari egindako ekarpenaren eta haren garapenaren berri emateko.

Nazio Batuen nazioarteko erakundeei dagokienez, finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztatutako aurkeztea eskatuko zaie justifikazio moduan, baita Estatu kideek Nazio Batuen Agentzietarako ezarritako funtzionamenduaren arabera eta beren araudi partikularraren arabera berariazkoa duten kontularitza-kontrola ere.

## **12.-LANKIDETZA EZAGUTARAZTEA**

---

Deialdi honetako erakunde onuradunek esanbidez adierazi behar dute Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntza jaso dutela. Betebehar horretan sartzen da erakundeak komunikaziorako erabiltzen duen edozein euskarri, direla inprimatutakoak, direla ekitaldietako egitarauak, kartelak, plakak, prentsa-oharrak, direla on-line euskarriak (webguneak, blogak, sare sozialak).

Nafarroako Kutxa Fundazioaren irudia egoki erabiliko dela ziurtatzeko, erakundeak irudia erabiltzeko jarraibideei buruzko dokumentuei atxikiko zaizkie, betiere laguntza ematea arautzen duten termino eta baldintzak onartu ostean; dokumentu horiek gure web-orrian egongo dira, erakunde onuradunentzat eskuragarri.

Era berean, proiektuko ekitaldi eta gertakari garrantzitsuen berri emango dute, baita Nafarroako Kutxa Fundazioak lagundutako proiektuarekin loturik erakundeak antolatzen dituen prentsaurreko edo ekitaldi publikoen berri ere.

### **13.-DATUEN BABESA ETA INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA**

---

Datuak babesteari dagokionez, erakundeek Nafarroako Kutxa Banku Fundazioarekin duten erlazioa honako hauetan garatutako araudiari atxikiko zaio: 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesten duena; eta Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorra (2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena).

Eskatutako datuak beharrezkoak dira laguntzen esleipendun diren proiektu eta erakundeak ebaluatzeko; horrenbestez, datuak emateari uko eginez gero, ezin izango dira laguntza hauek eskuratu.

Datuak babesteari buruzko araudian eskatzen den konfidentziasunarekin eta segurtasunarekin tratatuko dira emandako datu horiek, eta ez zaizkio ezein erakunde publiko edo pribaturi lagako, baldin eta kanpoko Ebaluazio Agentzia ez bada eta legez eskatutako kasuetan izan ezik.

Erakundeek emandako datuak egiazkoak direla bermatu behar dute eta, datu horiei buruz aldaketa garrantzitsurik gertatuz gero, Nafarroako Kutxa Fundazioari jakinarazteko konpromisoa hartzen dute.

#### **GARRANTZITSUA**

- **Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du**
- **Oinarri hauetako baldintza eta klausulen azken interpretazioa Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren eskumena da, ez beste inorena**
- **Oinarri hauetako atalen bat ez bada betetzen, deialditik kanpo uzteko arrazoitzat hartuko da**